

BARAKALDO

PSE-EEK bultzatutako jai eredua txarretsi dau Batasunak

Datorren zapatuan hasiko dira aurtengo Karmen jaiak, Barakaldon. Batasunak, os-tera, PSE-EEK «inposatuta-ko» jai eredua salatu dau. Ganera, txosnak jai gunetik kanpo ipintea eta aurrekon-tua murriztea gaitzetsi dau. Batasuneko zinegotzi Eider Casanovak esan dauenez, «kontzertu erraldoiak anto-latzen ditue, eta egia da ho-rreek jente asko mogitzen dabela, baina herritarrek ez dau parte hartzen».

2

BILBO

Duintasunez hil gura dabenek bizi testamendua egin ahal izango dabe

Bilbon bizi-testamenduen udal erregistroa zabaldu dabe, Eusko Legebiltzarrak berea ipini bitartean bilbotarrek euren azkenengo bo-rondatea non jakin eragin euki daiezan. Iñaki Azkuna alkatea eta Dimas Sañudo PSEko bozeroalea izan dira, euren bizitza eta heriotza baldintzen ganeko adieraz-pena egin dabene lehenengo-ak. Izan be, erregistroa ipin-teko proposamena PSEk egin eutson Udalbatzarrari.

3

DURANGO

Baimena eskatu beharko dabe txakur arriskutsua euki gura dabenek

Luis Bande Durangoko udal-tzainburuak esan dauenez, arraza arriskutsuko txakur bat izan gura dabenek bai-mena eskatu beharko dabe hemendik aurrera. Bestalde, guztira 950 txakur dagoz erroldatuta Durangon, eta Udaltzaingoak datu zehatzik ez badauka be, 50-100 izan leitekez arraza arriskutsue-tako batekoak.

7

LEKEITIO. Portuko beharrak

Eusko Jaurlaritza hasi da Lekeitioko portuko konponketa lanak egiten

Hurrengo zazpi hileetan barriztatze lanak egingo ditue Lekeitioko portuan. Eusko Jaurlaritza hasi da hartutako konpromisoa beteten, eta orain hasi diran beharretan zoladura barria botako dabe. Ganera, ingurua urbanizetako beharrak egiteari be ekin deusie. Lekeitioko portua konpon-tzeko bigarren fase bat be egongo da, eta bertan argiteria barria ipi-niko dabe. Guztira, obrek 1.226.000 euroko kostua eukiko dabe.

Ingurua urbanizauko dabe, eta zoladura barria bota

zoladurea da Lekeition botaten hasi dirana. Orain arte egoank maki-nen joan-etorria ez ebala errezten esan dabe Jaurlaritzatik. Bestal-de, etxeen estetikea be kontuan izango dabela agertu dabe

Hasi barri diran lanetan, zoladura barria bota-ten hasi dira. Hormigoizkoa da, eta Jaurlari-tzako Portu Siletik esan dabenez, oinezko-entzako egokiagoa da. Ean, Ondarroan eta Elantxobeko portuetan ipini dabene antzeko

6

LOIU. Azpiegitura barriak



JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS

Garbia izatearen ordaina, paddlea

Paddlean jolasteko aukerea eukiko dabe loiuhtarrek hemendik aurrera. Izan be, Diputazioak Loiuako Udaleri emondako Udalgarbi sariari esker lortutako kreditua erabili dabe paddle pistak egiteko. Foru Aldundiak, udalerriek uriko hondakin solidoak gestionetako egindako beharra eskertu guran, banatzen dauz

sari horreek. Herrikoek egindako eskaerari erantzuna emoteko, udaletxearen alboan egin ditue pista barriak. Holan, paddle instalazinoa eta Aiarizan orain gitxi egin dabene plazea inaugu-rau ebezan atzo, goizean. Beste agintari batzuen artean, Inguru-men diputau Maria Esther Solabarrieta egon zan ekitaldian.

4